

BERANGO

gaur

ABENDUA 2018 - 71 ZK.

BERANGO GAUR HILABETEKARIA
BERANGO GAUR MENSUAL

www.berango.net



Berango
Guztuen konpromisoa
Un compromiso común
21

berangokoudala@berango.org



GABONAK BERANGORA HELTZEN DIRA KULTURAZ ETA KIROL JARDUERAZ BETERIKO AGENDAREKIN

UMEEI ETA FAMILIEI ZUZENDUTAKO AKTIBITATEAK URTARRILERA ARTE LUZATUKO DIRA

Gabonak 2018"ko aktibitateak abenduaren 15ean hasi dira Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldiarekin, Berango Antzokian. Umeentzako eta familientzako programazioa berezia izango da berriro ere egun hauetan. Berango Antzokiaren zortzigarren urteurrena beteko da, GUP (Umeentzako Gabonetako Parkea) zabalduko da, eta Olentzerok eta Errege Maguek umeen ilusioa eta ametsak erakarriko dituzte. Honez gain, kirol eskaintza egongo da frontoian eta pailazoan eta txotxongiloen ikuskizunak.

Abenduaren 16an "Olentzeroren lagunak" ipuinkontalaria eskainiko da Santa Anako antzokian, Apika taldearen eskutik, 19:30ean. Hiru egun beranduago, 19an, Gabonetako Pilota Txapelketaren final-laurdenak jokatuko dira. Eskupilotako txapelketaren lehengo partida hauek arratsaldeko zazpi eta erdietan hasiko dira udal pilotalekuan.

Abenduaren 22an Berango Antzokiaren zortzigarren urteurrena ospatzeko festa egongo da, herriko elkarten eta taldeen partaidetzarekin. Arratsaldeko zazpietatik aurrera Nagusien Etxeko abesbatzak eta dantza taldeak, Musika Eskolako ikasleek eta Kultur

Etxeko dantza moderno taldeko partaideek parte hartuko dute.

Abenduaren 24a umeentzako egun berezia da, Olentzero herritik ibiliko delako ilusioa eta opariak banatuz. Ikazkina eta bere laguntzaileak arratsaldeko sei eta erdietan irtengo dira Berangoetako Kultur Etxetik frontoian umei harrera egiteko.

Gabonetako Umeen Parkea atek zabalduko ditu abenduaren 26an eta 27an. Frontoian jolasak, tailerrak eta umeentzako eta gazteentzako atrakzioak egongo dira 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Pilotako txapelketaren finalerdiak abenduaren 28an jokatuko dira, 19:30ean. Egundorretan ere umeentzako txotxongiloen ikuskizuna egongo da Berango Antzokian, arratsaldeko seietan, Ameztu Taldearen eskutik. "Egur taupadak" euskaraz eskainiko da, doako sarrerekin.

Abenduaren 29an errusiar balletaren txanda izango da, Gazteria Taldearekin, "Ispiluan zehar" adin guztietarako ikuskizuna eskainiko duelarik. Urteko azken hileari amaiera emateko, pilota txapelketaren finalak jokatuko dira 30ean arratsaldeko seietan. Egundorretan ere euskal dantzen ikuskizuna egon-

go da Santa Anako antzokian herriko Otxandategi Dantza Taldearen eskutik. Talde honek urte berezia bizi izan du Berango euskal dantzen etengabeko 75 urte bete direlako eta horren inguruan ekintza ugari bultzatu dituztelako.

Urtarrilaren 2an Gazteentzako Gabonetako Parkea irekiko da. Arratsaldeko seietatik aurrera atrakzioak, tailerrak eta dibertsioa egongo dira frontoian, gaueko bederatzia arte. Urtarrilaren 4an umeentzako antzerkiaren txanda izango da. Berango Antzokian Patata Tropikala Taldeak "Denboraren taupadak" lana antzeztuko du, arratsaldeko seietan. Gabonetako programazioan Errege Maguen Kabalkada arrakastatsua dago ere, urtero bezala. Arratsaldeko 19:30ean Berangoetako Kultur Etxetik irtengo da eta frontoian amaituko da, han umei harrera egingo zaielarik beraien opariak eskatzeko aukera izan dezaten. Ondoren, Xaibor DJ-ak jaia alaituko du pilotalekuan bertan, musika eta dantzarekin.

Otxandategi Taldea abesbatzak gabonetako agendari amaiera jarriko dio. Koru honek emanaldi bat eskainiko du Santa Anako antzokian eguerdiko 12:30etan.

MAISUAREN PARKEA HOBETZEKO LANAK HASI DIRA, UDALETXEAREN ONDOAN

LANAK IRISGARRITASUNA HOBETZEKO ETA OINEZKOENTZAKO BIDEAK ZABALTZEKO HELBURUAREKIN EGINGO DIRA

Maisuaren Parkea hobetzeko lanak abenduaren amaieran amaituko dira. Berango-ko Udalak 39.000 euro inbertituko ditu leku hau hobetzeko egingo diren lanen lehenengo fasea aurrera eramateko. Esparru hau Udalletxearen atzeko partearen eta Berangotxu kalearen artean dago. Egingo diren lanen artean, publikoa den lursail honetan zeuden ortuak kenduko dira, hauetatik hurbil bizi diren pertsonen jarritako kexei erantzuna emanez.

Zonalde guztia garbituko da eta lorezaintza zerbitzuaren aldagela eta biltoki moduan erabiltzen ziren ekipamenduak kenduko

dira. Azken hauek erraustuta daude jada, parkea zatitzen zuen horma bezala. Honez gain, barbakoak ere kenduko dira.

"Ekintza hau prozesu parte hartzaile desberdinetan agertutako proposamenei erantzuteko aurrera eramaten da eta, aldi berean, ondoko auzokideek jarritako kexei ere erantzuna ematen die", azpimarratu zuen alkatea den Anabel Landak. Lan hau Osoko Bilkuran onartu egin zen 2018rako udal aurrekontuarekin batera, kreditu-aldaketa espedientearen jasota agertzen den bezala. Datorren urtean aisia-espazio honetan inbertsio gehiago egingo dira.





"EL EFECTO MARIPOSA" LELOAK BIZIRIK JARRAITZEN DU EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA AMAITZEAREN ALDE

BERANGON ETA URIBE KOSTAN EGIN DIREN KONTZENTRAZIOEK BIKTIMAK GOGORATZEN DITUZTE

Emakumearen kontrako indarkeriarekin amaitzeko Nazioarteko Eguna dela eta azaroaren 25ean antolatutako kontzentrazioak era-soak eta sexu-jazarpenera ezabatuzko beharra aldarrikatu zuen. Pasadan hilabetean aktibitate ezberdinak antolatu ziren herrian, Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzarekin emakumearen elkarteak protagonismo handia izan zuelarik.

"El efecto mariposa" leloarekin, Berangon problematika erakustea, jarrera aktiboa mantentzearen beharraz herritarrak kontzientziatzea eta indarkeria matxistaren kasuen aurrean zero tolerantzia aurkeztu behar dela gogoratzea bilatzen da.

Herriko eta eskualdeko udalerrien agintariak eta Berangoko emakumearen elkarteko kideek Urdulizen azaroaren 25ean burutu zen ekitaldian parte hartu zuten. Jardunaldian Uribe Kostako Emakumeen Topaketaren bederatzigarren edizioa ospatu zen. Hildako emakume guztien omenean eta indarkeria matxistaren kontrako borrokaren sinbolo bezala zuhaitz baten eskultura sinbolikoa kokatu zen eta honen aurrean kontzentrazioa egin zuten.



Agenda Berango Antzokia

Diciembre 2018ko Abendua

• Abenduak 22 // 19.00h
ANTZOKIAREN VIII. URTEURRENA
Parte-hartzaileak: Nagusien Abesbatza eta Saloi Dantzak, Musika Eskola eta Kultur Etxeko Dantza Modernoa. **Doan.**

• Abenduak 23 // 18.00h
"PUPURRI PUPURRI"
PAILAZO emanaldia umeentzat. **Euskaraz. Doan.**
Abesti eta jolas dibertigarriak, Korri eta Xalto pailazoekin.

• 28 Abenduak 28 // 18.00h
"EGUR TAUPADAK"
TXOTXONGILOAK umeentzat. **Euskaraz. Doan.**
Iratxo bat urruneko herrialde batetik etorriko da.

• Abenduak 29 // 19.00h
"ISPILUAN ZEHAR"
BALLET emanaldia adin guztientzat. **Sarrera: 4 €.**
Errusiako "Gazteria" Ballet taldearen emanaldia.

• Abenduak 30 // 12:30h
"EUSKAL DANTZAK"
Simon Otxandategi Dantza Taldearen emanaldia. **Doan.**

• Urtarrilak 4 // 18:00h
"DENBORAREN TAUPADAK"
ANTZERKI emanaldia umeentzat. **Euskaraz. Doan.**
Fabrika zahar batera iritsi da Odei bere maletarekin.

• Urtarrilak 11 // 20.00h
"OTXANDATEGI ABESTALDEA"
ABESBATZA emanaldia adin guztientzat. **Doan.**
Berangoko abesbatzak bere kantuen errepertorioa abestuko du.

• Urtarrilak 12 // 19.00h
"MIS NOCHES DE PARIS"
ANTZERKIA helduentzat. **Gaztelaniaz. Sarrera: 1 €.**
Familia baten historia kontatzen du, egunkari baten bitartez.

• Urtarrilak 13 // 18.00h
"ZORO GAITEZEN"
PAILAZO emanaldia umeentzat. **Euskaraz. Sarrera: 4 €.**
Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoan abentura dibertigarriak.

• Urtarrilak 19 // 19.00h
"BERRIKETAN"
FLAMENKO eta TXALAPARTA ikuskizuna. **Sarrera: 4 €.**
Flamenco eta Txalaparta uztartzen dituen "La Pulga"ren emanaldia.

Sarreraren alde aurretiko salmenta: Kultur Etxean. Gehienez ere 4 sarrera pertsona bakoitzeko Agenda posta elektronikoz jasotzeko: euskara@berango.org Sar-tu gure webgune berrian www.berangokultura.eus



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Saillburuordetza)
diruz lagundutakoa



Gehigarri honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



BADATOR OLENTZERO!



Pie de foto

Olentzerok asto batek bultzatutako orga batean bere ibilbidea egingo du, abenduaren 24an. Arratsaldeko sei eta erdietatik

aurrera kalejira Berangoeta Kultur Etxetik irtengo da eta frontoian amaituko da. Ikazkin magikoak ilusioa eta gozokiak banatuko ditu bere ibilbidean eta pertsona ugari

lagunduko diote, animatzeko musika egoteaz gain. Familia askok urtero gozaten dute ACADAE elkarteak eta Berangoko Udalak antolatutako kalejira honekin.

ERREGEEN KABALKADA

Errege Maguen Kabalkada urtarrilaren 5ean irtengo da, 19:30ean, Berangoetako Kultur Etxetik. Ekialdeko Maguek zaldien gainean joango dira Simon de Otxandategi kaletik frontoiraino eta han harrera egingo zaie. Kalejiran pajek eta erro-mako legionarioek hartuko dute

parte, besteak beste, eta musika-animazioa egongo da txistularien eskutik. Melchor, Gaspar eta Baltasarrek umeen eskaerak entzungo dituzte ACADAEk (Arte Eszenikoen Lagunen Kultur Elkarte) antolatutako kabalkadan. Txokolatada ere egongo da.





Pie de foto

EKO GUNE LANZA UNA DOCENA DE CURSOS

Hasta el 21 de diciembre permanece abierto el plazo de inscripción para los cursos de Ekogune que se impartirán en Urduliz, bien en el Gazteleku o en la Kultur Etxea, por las tardes. De enero a junio de 2019 habrá cursillos de Costura para principiantes y para iniciados; Recicla, Recupera y Reutiliza; Cocina sostenible, hortalizas locales y de temporada; Recuperación de muebles; Elaboración de conservas vegetales: llena tu despensa de calidad; Cata de cereales; Cómo hacer fácil lo aparentemente difícil. Recetas para que los niños y niñas coman a gusto y sano, y Gastrodiversidad, patrimonio agrícola y gastronómico.

La oferta en euskera contempla tres talleres: CD ak Objektu erabilgarri bihurtzea; Iraultza sukaldean hasten da. Presta dezagun menua! Y Pasta tailerra umeentzat. Para más información, se puede visitar la web de la Mancomunidad en la página www.uribekosta.eu/sostenibilidad.





NAGUSIEN ETXEKO PLAZA OTXANDATEGI DANTZA TALDEA ENPARANTZA DEITZEN DA

SABINO ARANA "HERRITARREK ERABILTZEKO ETA GOZATZEKO KALEA" BIHURTZEN DA

Sabino Arana kaleko lanen bigarren fasea martxan dauden bitartean, tarte nagusia berritu egin da. Eta hiri-egitura horren parte garrantzitsu bat Nagusien Etxearen aurrean kokatutako plaza da, Otxandategi Dantza Taldea Enparantza deitutakoa. Alkatea den Anabel Landak plaka estalgabe zuen herriko taldearen zuzendaria den Iñaki Gonzalezekin batera. Bizkaiko ahal-dun nagusia den Unai Rementería eta Uribe Kostako beste herrialde batzuen alkateak ere egon ziren ekitaldian, besteak bes-

te, Getxoko alkatea eta Eudeleko (Euskal Udalen Elkarte) presidentea den Imanol Landa. "Sabino Arana herritarrek erabiltzeko eta gozatzeko kalea bihurtu dugu; oinezkoentzako atsegina eta erosoa, jadanik existitzen diren dendetarako eta ostalaritzarako zein saltoki berri gehiago zabaltzeko erakargarria", nabarmendu zuen Berangoko alkatea. Anabel Landak berarentzat plazaren izendapen berria "gai nagusia" zela azpimarratu zuen, dantza taldearen 75. urteurrena dela kontutan izanda.

"Otxandategi Dantza Taldea da Berango adierazgarri onena atzerrian" azaldu zuen, eta izen hau ematea musika eta kantu atalak ere sartzen dituen elkarte honek "merezi" duena da. "Berangokoa izateaz oso harro nago. Eta Otxandategi Taldearen ordezkaria izateaz oso harro nago ere" azaldu zuen "talde zoragarri honen" zuzendariak. Iñaki Gonzalezek "gure herriko talde gehienek erakutsi diguten maitasuna" eskertu zuen eta "munduko leku askotatik ere bidali dizkiguten maitasun-frogak: Europatik - Alema-

niatik, Errusiatik, Ameriketatik - Argentinatik, Colombiatik, Mexikotik, Afrikatik-Senegaletik...". Gonzalezek urteurrena gogoratzeko taldearen historiaren 75 urteei buruz liburu bat editatu dela azaldu zuen. Berak egin du lan hau eta Euskaltzaindiaren idazkaria den Xabier Kintanak hitzaurrea idatzi du. Argitalpena herriko Eroski hipermerkatuan dago salgai eta urte hauetan zehar dantza egin duten 800 dantzarien izenak batzen ditu, taldearen eta bere kideen egun eta atzera begirako argazkiekin batera.

LA PLAZA DEL NAGUSIEN ETXEA SE LLAMA OTXANDATEGI DANTZA TALDEA ENPARANTZA

SABINO ARANA SE CONVIERTE EN "UNA CALLE PARA USO Y DISFRUTE DE LA CIUDADANÍA"

Mientras están en marcha las obras de la segunda fase de la calle Sabino Arana, el tramo principal ya se ha renovado. Y una parte importante de ese entramado urbano es la plaza situada frente al Hogar del Jubilado, que se llama Otxandategi Dantza Taldea Enparantza. La alcaldesa, Anabel Landa, descubrió la placa junto al director del grupo local, Iñaki González, en un acto al que acudieron personalidades como el diputado general de Bizkaia, Unai Rementería, y alcaldes de otras localidades de Uribe Kostaa. Entre ellos, estuvo el primer edil de

Getxo y presidente de Eudel (Asociación de Municipios Vascos), Imanol Landa. "Hemos convertido Sabino Arana en una calle para uso y disfrute de los ciudadanos; en un lugar amable y cómodo para el peatón, además de atractivo tanto para el comercio y la hostelería ya existentes, como para la implantación de nuevos establecimientos", resaltó la alcaldesa de Berango. Anabel Landa destacó que era "una cuestión principal" desde su punto de vista la nueva denominación de la plaza, que viene a conmemorar el 75 aniversario del grupo de danzas. "Otxandategi Dantza Taldea es

el escaparate más internacional que tenemos en Berango", apuntó, para apostillar después que darle ese nombre es algo "merecido" por esta agrupación que incluye además un apartado musical y otro de canto. "Orgullosa, muy orgullosa de ser de Berango. Y orgullosa también de ser el representante de Otxandategi Taldea" se mostró el director de "este maravilloso grupo". Iñaki González agradeció "las muestras de cariño que han llegado de la inmensa mayoría de los grupos de nuestro pueblo" y también "de los lugares más recónditos del mundo:

de Europa -de Alemania, de Rusia-, de América -de Argentina, de Colombia, de México-, de África -de Senegal-...". González recordó que para la conmemoración se ha editado un libro sobre los 75 años de historia, un gran trabajo realizado por él mismo y con prólogo del secretario de Euskaltzaindia, Xabier Kintana. La publicación, que está a la venta en el hipermercado Eroski de la localidad, recoge unos 800 nombres de dantzaris que han bailado durante todo este tiempo, así como fotos actuales y retrospectivas del grupo y de sus componentes.

FAMILIA BATEN ZAIN JARRAITZEN DUTE

Amatza Auzoa, 5 lurreta 48215 (Goiuriko bidea). Bizkaia.
Zentroko ordutegia: astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00; 16:00-19:00;
Zapatuak: 10:00-14:00

Ba al dakizu, gaur egun, Berangoko herrian bertan batu diren 5 txakur daudela txakurtegian, adopzioaren zain? Interesaturik egonez gero, ikustera joan zaitezke, **ZAUNK**-era

SIGUEN ESPERANDO UNA FAMILIA

Barrio de Amatza, 5 lurreta (Carretera Goiuria). Bizkaia
Lunes a viernes: 10.00-14.00 ; 16.00-19.00 Sábados: 10.00-14.00

¿Sabías que existen 5 perros que se han recogido en el municipio de Berango y que hoy en día están en una perrera a la espera de que sean adoptados?

Si estás interesad@ en adoptar alguno de estos perros, puedes realizar una visita y conocerlos en **ZAUNK**



Izena: Saiko
Arraza: Setter
Sexua: Arra
Adina: 2 urte
Ezaugarriak:
Lagunkoia eta aktiboa



Izena: Lolo
Arraza: Mestizo
Sexua: Arra, zikiratua
Adina: 2 urte
Tamaño: Txikia
Ezaugarriak: Lagunkoia



Izena: Ron
Arraza: Mestizo
Sexua: Arra
Adina: 2,5 urte
Ezaugarriak:
Lagunkoia eta maitekorra



Izena: Tak
Arraza: Setter
Sexua: Arra
Adina: 3 urte
Ezaugarriak: Lagunkoia,
baina aktibitatea behar du



Izena: Spike
Arraza: Spaniel Bretón
Sexua: Arra
Adina: 3 urte
Ezaugarriak: Lagunkoia,
beste txakur eta pertsonekin



Nombre: Saiko
Raza: Setter
Sexo: Macho
Edad: 2 años
Características:
Sociable y activo



Nombre: Lolo
Raza: Mestizo
Sexo: Macho, castrado
Edad: 2 años
Tamaño: Pequeño
Características: Sociable



Nombre: Ron
Raza: Mestizo
Sexo: Macho
Edad: 2,5 años
Características:
Sociable y cariñoso



Nombre: Tak
Raza: Setter
Sexo: Macho
Edad: 3 años
Características: Sociable
pero necesita actividad



Nombre: Spike
Raza: Spaniel Bretón
Sexo: Macho
Edad: 3 años
Características: Sociable
con perros y personas